

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Elizalde kontseilariak “Nafarroa iraunkorra” defendatu du Smart Regions-ean, lurralde adimentsuen foroan

Ekonomia zirkularri, ingurumen-iraunkortasunari eta energia-eraginkortasunari buruzko mahai-inguruan parte hartu du gaur goizean

Astelehena, 2018.eko uztailak 16

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria den Isabel Elizalde Smart Regions "Lurralde Adimentsuen" Foroan parte hartu du gaur goizean, Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoko auditorioan, Zamudion.

Topaketan, Lurralde Adimentsuaren kontzeptuan

sartzen diren ikuspegi ezberdinak aztertu dituzte, estatuko nahiz Europako administrazioaren ikuspuntutik nahiz enpresen ikuspuntutik. Zehazki, Smart Region batek biltzen dituen eremu ezberdinak jorratu dituzte; hala nola, mugikortasun eta garraio adimentsua, administrazio elektronikoa eta konektibitate plataformak, ekintzailtza eta agenda digitala, ekonomia zirkularra, ingurumen-arloko iraunkortasuna eta energia-eraginkortasuna.

Isabel Elizalde eskainitako hitzaldian nabarmendu du, Foru Gobernuak Aldaketa Klimatikoaren gainean onartutako Ibilbide Orrian jasotzen den moduan, “Nafarroak iraunkortasunarekiko konpromisoaren eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokaren aldeko apustua egiten duela, eredu sozio-ekonomiko eta energetiko berria sortze aldera, karbono baxuko ekonomia eta efektu klimatikoetara egokitutakoa izatearren”. Foru Komunitateak “garapen iraunkorraren erreferentea izan behar du, ingurumen aldetik arduratsua eta baliabideak erabiltzeari dagokionean eraginkorra den lurraldearekin, pertsonen, jardueraren eta ingurunearen arteko orekari eutsiaz”. Isabel Elizalde “Ekonomia Zirkularren, ingurumen-arloko iraunkortasunaren eta energia-eraginkortasunaren” inguruko mahai espezifikoa esku hartu du, eta ikuspegi hori Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin eta Nafarroako Gobernuaren gizarte-politikekin batu du, hori guztia Nazio Batuen 2030 Agendan ezarritako norabide berean.



Elizalde kontseilaria, Tapia zinegotziarekin eta foroaren antolatzaileekin batera.

Topaketa Arantxa Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomikoko eta Azpiegituretako sailburuak, eta Daniel Callejak, Europako Batzordeko Ingurumeneko zuzendari nagusiak (bideo-mezuaren bitartez) inauguratu dute. Lana gaikako lau mahairen inguruan egituratu da: Eskualde Adimentsuak; Data eta IKTeak eta Administrazio elektronikoa; Mugikortasun eta Garraio Adimentsua; eta Ekonomia Zirkularra, Ingurumen-arloko Iraunkortasuna eta Energia Eraginkortasuna.

Smart Regions, lurralde adimentsuen foroa, WB Taldeak eta Aquí Europak antolatzen dute Innobasquerekin elkarlanean.

Halaber, foroan parte hartu dute Vodafone, Acciona, Tecnalia eta Irizar e-mobility bezalako nazioarteko erakundeetako adituek eta Finlandiako Aalto Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko, Europako Batzordeko, Espainiako Gobernuo eta Eusko Jaurlaritzako adituek.

